

## 5. HEZKUNTZA BATZORDEAREN AKTA

---

Baztando Udaletxeko Batzar gelan **2012ko ekainaren 12an**, arratsaldeko 5:00etan

### BERTARATUAK:

Jasone Altxu(Ikastola)  
Isabel Ibarrola (S. Franzisko Javier)  
Ane Gaztelumendi(San Franzisko Javier)  
Xabier Ballarena (Ornozko eskola)  
Nora Salbotx (Amaiurko eskola)  
Kristina Goñi (Baztango Haur eskola)  
Elurre Iriarte (Arizkungo guraso elkarte)  
Mari Mar Antxordoki (Erratzuko Guraso elkarte)  
Lourdes Mariezkurrena (Iruritako Guraso elkarte)  
Kruzi (Iruitako eskola)  
Maitane Maritorea (Bildu)  
Maite Oteiza (Bildu)

### GAI ORDENA:

1. Aitzineko aktaren onespena.
2. Kilometraje ziurtagiria
3. LICei buruzko erakusketa
4. Hik Hasi "Hazi Hezi" aldizkaria
5. Guraso elkarteendako dirulaguntzak
6. Murrizketak
7. Obrak.
8. Kortinak
9. Irrien lagunak aldizkaria.
10. Musika eskola: helduendako tailerra.
11. Bertsolaritza irakaskuntzan.
12. "Euskal artzainak" erakusketa.
13. Galde eskeak

### BATZORDEAREN NONDIK NORAKOAK:

Akta irakurri ondok, onartu da.

**2.- KILOMETRAJEA:** Maite Oteizak eskola bakoitzetik etxeetara dauden kilometro kopurua gaurkotu dela azaldu du, horren ondorioz 2km-ko distantzia betetzen ez duenak ez du dirulaguntzak hartzeko eskubiderik izanen.

**3.- LIC:** Baztango LIC (Lugar de Interes Comunitario) eremuak ezagutarazteko Baztango Udalak hainbat panel eta eskuorri ditu. Panel eta eskuorri hauek eskoletarat eramaten ahal dira, nahi izanez gero ikasleek ikus dezaten.

**4.- HIK HASI →** Hazi Hezi aldizkaria. Guraso elkarteei aldizkari honen informazioa eman zaie nahi izanez gero harpidetza egin dezaten.

**5.- GURASO ELKARTEENDAKO DIRULAGUNTZAK:** dirulaguntzak eskatzeko epea irekia dagoela jakinarazi da.

**6.- MURRIZKETAK:** jakinarazi da ekainaren 15ean goizeko 11:00etan Elizondoko saihasbidea inauguratzerat heldu direla eta, protesta gisa bertara hurbiltzea. Horrez gain, ekainaren 23an eguerdiko 12:00etan Baztan Bidasoa eskualdeko manifestazioa egingen da Elizondon Osasungintzan eta Hezkuntzan egiten ari diren murrizketen aurka.

**7.- OBRAK:** Maitek eskola bakoitzeko irakasleari norberaren eskolan egin beharreko lanen zerrenda zein izan den banatu die (iaz eskatu zutena. Egin direnak markatu eta egiteko daudenak zehazteko).

Enplegu Babestuko langileen esku dagoena beraiek egingen dute, kontuan hartuz zenbaitek muga fisikoak izaten ahal dituztela hainbat lan egiteko.

**8.- KORTINAK:** Enplegu babestuko 8 langile eskatu ziren hamar hilabeteko kontratazioarekin, formakuntza jasotzeko eta laguntzako langile bat beraiekin egoteko. Horrek guztiak 120.000€ko balioa zuen.

Gaur berean, ekainaren 12an, Nafarroako Gobernutik abisua eman dute 49.000€ emanen dutela, hortaz, aurreikusia zegoena ez da betetzen ahal, diruaren erdia baino gehiago ez baitute emanen. 49.000€ horien barnean dago kortinak egiteko formakuntza jasotzea. Kortina horiek negu alderat egitea pentsatu da, eskolen beharrak asetzeko.

**9.- IRRIEN LAGUNAK ALDIZKARIA:** 4.Hezkuntza Batzordean Irrien Lagunak klubeko proposamen baten berri eman zen. Udalak 10 aldizkari hartzen bazituen, bakoitza 20€an hartzen ahalko zela. Eskola guztiei ongi iruditu zitzaenez, Baztango udaleko Euskara partidatik ordainduko dira aldizkariak. Baztango eskola guztiek hilabetero jasoko dute irrien lagunak aldizkaria beraien eskoletan.

Nora Salbotxek aipatu du 0 alea doan eskuratzeko aukera dagoela, interesa duen orok Norarekin paratu beharko luke harremanetan.

0 aldizkari horrez gain, Irrien lagunak elkarteak Ecogras enpresarekin elkarlanean duten proiektuaren berri eman du Norak: olio biltzeko kontenedoreak eskoletan paratzea. Lortzen den litro kopuruaren arabera, irabaziaren ehuneko portzentaje bat eskolari emanen liokete. Herrietako eskoletan hiru eskola prest daude egitasmo honetan parte hartzeko, horren truk Porrotx etorriko litzateke. Bertze eskoletarat ideia zabaltzeko, honetan ere interesa duenak Norarekin harremanetan paratzea bertzerik ez du.

**10.- MUSIKA ESKOLA:** Eskolen bidez ikasleei inkesta gisako bat pasatu zaie zein instrumentu ikasiko luketen galdezka. Anitzek gitarra hautatu dute, hori dela eta heldu den ikasturtean gitarra emateko proposamena aztertzen ari da Udala. Tramite luzea eskatzen duenez (lehenik Nafarroako Gobernuari eskaera egin, eskaerak aztertu, deialdia...), 2013-2014 ikasturterako utzi da instrumentu honen eskaintza.

Bertalde, eta aitzineko Hezkuntza Batzordean azaldu zen ke-xari erantzunez, aurten helduendako tailerrak eskainiko dira. Xabi Ballarenak galdetu du ea solfeorik izan gabe izena ematen ahalko den, hori argitzea inportantea baita.

Bertaratuen iritzi metodologia aldatu beharko litzateke Musika Eskolan, sobera solfeo ematen baita.

**11.- BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN:** Nafarroako Gobernuak jakinarazpen baten bidez aste honetan erran die ez dietela dirulaguntzarik emanen Nafarroako Bertsozale

Elkartekoei, hori dela eta Maitanek azaldu du litekeena dela horrek eragina izatea eskoletan ematen diren bertsolaritza klaseetan, nahiz eta azaldu duen Baztango Udalak Bertsozale elkartearekin duen hitzamina dela eta klaseak eman, emanen direla.

**12.- EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN:** Elkarte honek panelak egiteko proposamena darabil eskuartean, hortaz, eta Baztango Udalak elkarte honi emandako laguntza dela eta, eskolaz eskola erakusketa ibiltaria egiten ahalko da.

**13.- GALDE ESKEAK:** Maite Oteizak azaldu du arreta goiztiarreko zerbitzua 0-3 urte bitarteko haurrentako doan dela, eta baztandar guztiak joaten ahal direla beharra ikusiz gero. Eskola guztiei eta guraso elkarteei honen berri emateko eskatu du.

*Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa gogora ekarri du Maitanek, irailaren 22an egingen dela jakinik eta eskoletan hilabete horretan mugimenta handia egoten dela kontuan hartuz, gogoratu du abisua pasako zaiela ikasle guztiei oharra pasatzeko euskararen aldeko lasterketa horretan parte hartzeko.

Irailaren 30ean Baztango Herrietako eskolen besta izanen dela oroitarazi da.

Norak oroitarazi du energia apostua zela eta Cranakoek opari gisako bat emanen zutela erran zutela. Hortaz, balorazio, informe... egiterakoan Udalerat igorri Udalak Cranarat igortzeko.

**Hurrengo Hezkuntza Batzordea irailaren 25ean arratsaldeko 5etan.**

Maite Oteiza Apezetxea  
Baztango Hezkuntza zinegotzia.